



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIARIEN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean”

2023ko irailaren 10a  
Urteko 23. igandea (A)

### Mateo 18, 15-20.

“Zure senide batek bekatu egiten badu, zoaz berarengana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, hartu zeurekin lagun bat edo bi, *auzi oro bi edo hiru lekukoren aitorpenaz erabaki dadin*. Haiei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

“Benetan diotsuet: Zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua geldituko da.

“Beste hau ere esaten dizuet: Zuetako bik mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko elkar hartzen badute, eman egingo die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean”.

Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean.

## JESUSEN IZENEAN ELKARTU

*José Antonio Pagola*

K.o.ko 70ean Jerusalem suntsitu izanak krisi sakona eragin zuen judu-herrian. «Jainkoaren etxea» zen haintzat tenplua. Handik gobernatzen zuen Jainkoak, bere legea ezarriz. Tenplua suntsiturik, non aurkitu orain Jainkoaren presentzia salbatzaile hura?

Lege-maisuak honela erreakzionatu zuten: Legea aztertzeke egiten zituzten bileretan bilatuko zuten Jainkoa. Ananias rabbi famatuak, 135. urte inguruan hil zenak, argiro zioen: «Legeko hitzak aztertzeke bi lagun elkartzan diren lekuan, han dago Jainkoaren presentzia (“Shekina”)».

Judaismotik zetozen Jesusen jarraitzaileek beste era batean erreakzionatu zuten. Jesusi egozten dizkion hitza batzuk gogorarazten dizkie bere irakurleei Mateok; bere jarraitzaileen artean bere presentzia bizirik mantentzeke oso inportanteak dira: «*Nire izenean bi edo hiru lagun bildurik dauden lekuan, han nagoke ni haien artean*».

Ez da ohituraz, legea egiteke edo esana betetzeke egiten den bilera. Topaketa honetako giroa beste gauza bat da. «*Jesusez izenean elkartzen diren*» haren jarraitzaileak dira, hark erakarririk, haren espirituak arnasturik. Jesus da topaketa horren zergatia, iturria, hatsa, bizia. Jesus, berpiztua, presente da han.

Esan beharrik ez, kristauen igandeko bilera krisia sakonean dagoela. Askori jasanezineko gertatzen zaio meza. Ez du jadanik pazientziarik egintza horretan parte hartzeke, zeinetan sinboloen esanahia ezezagun gertatzen baitzaio, zeinetan bere bizitzari ez doazkion hitzak entzun behar izaten baititu askotan.

Jende batek meza-mota hau bakarrik ezagutzen du: modu taldekoian aurkeztua, elizjendeak arautu eta gidatua, zeinetan herria era pasiboan egon ohi baita, bere isiltasunera edo bere erantzun mekanikoetara mugatua, edukiari dagokionez ulertzen ez duen hizkuntzarekin bat egin ezinik. Hori ote «*Jaunaren izenean elkartzea*»?

Nolatan gerta daiteke igandeko bilera galduz joatea ezer gertatuko ez balitz bezala? Ez ote da Eukaristia kristautasunaren erdigune? Nolatan gertatzen da Hierarkiak ezer ez planteatzea, ezer ez aldatzea? Nolatan gertatzen da kristauok isilik gelditzea? Nolatan halako pasibotasuna eta erreakziorik eza? Non eragingo ote ditu Espirituak bi edo hiru lagun topaketak, Jaunaren izenean elkartzen erakutsiko digutenak?